



Etxekua oiñarri

GEHIXAGO ETA HOBETO programiaren barruan Bergarako Udaleko Euskara batzordiak **ume eta gurasuendako** argitaratutako aldizkaritxua.

IEPA LAGUNOK!

Zela daroiazue negu gogor hau? Ondo tapatuta ibiliko zarete, ezta? Etxian egoteko girua egitten dabenez, aurrekuan bezala, Apatxirekin jolas egitteko aukeria daukazue orainguan. Jolasian egin eta, gaiñera, sarixak irabazi, galdetuixozue bestela Nora Zangitu, Peru Mugika eta Gurutz Axperi; 3rak izan dira eta aurreko aleko irabazliak. Zorionak eta jarraitu jolasian!

Eta bestioi zorte on!



NORA ZANGITU
4 urte



PERU MUGIKA
5 urte



GURUTZ AXPE
11 urte

AHOLKUAK!

Bergarako aditza lantzeko orduan taula osuak nahi badittuzue, Udalak argitaratutako "Bergara aldeko hiztegia"n topau zeinzie edota Badihardugu euskara elkartiak argitaratutako liburuxkan edo Interneten:

http://www.badihardugu.com/argitalpenak/aditz_taulak/bergarako_aditza.pdf

URREZKO ARAUA

1- ADITZA: AHALERA

Ahalera erabiltzeko bi forma dauzkagu.

Alde batetik bizirik dauzkagun forma trinkuak:



- Marrazkixa egin **neike**?
- Laga **zeinkixo** liburua Mikeli? Ahaztu egin jako eta!
- Atzo lagunak lehenago etorri **zeizkien** bazkarira!
Etorri zirenerako dana janda zeguan!

Bestetik, ahalezko forma ahaztuta edota galduta daukagunian, "ahal" erabili geinke:

- Marrazkixa egin **ahal dot**?
- Laga **ahal dotsazu** liburua Mikeli? Ahaztu egin jako eta!
- Atzo lagunak lehenago etorri **ahal ziren** bazkarira! Etorri zirenerako dana janda zeguan!

Baiña beste hauek asmakizunak dira:



- Marrazkixa egin **leikedot**?
- Laga **leikejatu** Mikeli? Ahaztu egin jako eta!
- Atzo hark bazkarira lehenago etorri **leikiziren**!
Etorri zirenerako dana janda zeguan!

2- GAZTELANIAZKO "SI"

Harridura adierazteko gaztelaniazko "si" erabiltzeko joeria daukagu; baiña euskaraz badauzkagu harridura adierazteko egitura egokixak, esate baterako:



- Ezebe ez dozu egin **baiña**!
- Ezebe ez dozu egin **eta**!
- Ezebe ez dozu egin **barren**!



- Si-ez dozu egin ezebe!

Ikurren bidez ariketa bakoitza zeintzundako dan egokixa adierazi nahi da:

🌸 3-6 urtekuendako 🎈 7-9 urtekuendako 🎆 10-12 urtekuendako



Nagusixak edota umiak nagusixen laguntzarekin egittekuak

GEHIXAGO ETA HOBETO programaren bultzatzailliak:

BERGARAKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUA, JARDUN EUSKARA ELKARTIA, SAN MARTIN
ESKOLIA, MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLIA, ARANZADI IKASTOLIA ETA IPINTZA INSTITUTUA .



ASMAKIZUNAK

Asmakizun honek asmatzeko zailtasunak baldin badauzkazue, laguntzatxo bat emongo dotsuet. Erantzunak hor dauzkazue baiña zeuek ordenatu biharko dittuzue!

1- Hegazti-denda bateko dendarixak hau esan zotsan lorua erosi zebanari: "loro honek entzuten daben dana errepikatzen dau". Astebetara, eroslia bueltau da eta honek esan dotsa berba-erdirik be ez dabela egin. Baiña dendarixak esan dotsa ez zotsala gezurrik esan. Zela izan leike?

ERANTZUNA: RAOUL ORRAG AD



2- Hiru lagun, oso lodixak, ermittara abiatu dira eurittako bakarrarekin. Ermittara ailegatzen diranian, danak lehor-lehor dare; zela izan leike?

ERANTZUNA: ERRITA GDOA

3- Badakizu zer dan ez daukanak daukanari emon leikixona?

ERANTZUNA: ASTIOL

4- Ez daukat ahorik gauza tristiak kontatzeko baiña hala ta be edozein jarri neike negarrez

ERANTZUNA: PAILUKI

EGOERAK



Zein erantzun emongo ziñuke horrelako egoera batian aurkittuko baziña?

Nik adibide bat emongo dotsuet eta ia zuek horrelakuak egitten dittuzuen!

Ixil-ixilik zendela andereñuak ixiltzeko esan dotsu. Zer esango zontsake?

- Ni ixillik neguan **eta!** Edo

- Ni ixillik neguan **baiña!**

1. Ikastetxian sartzeko ordua da eta kalia gora zoiaz arreba txikixa eruan ezinda. Zer esango zontsake?
2. Kalia zoiazela lagun baten parian pasau eta ez dozu agurtu eta berak diar egin dotsu. Zer esango zontsake?
3. Etxian zabizte jolasian, kanpua izugarrizko zaparradia dihardu eta Gaizkak kalera irtetzeko proposamena egin dotsu. Zer esango zontsake?
4. Txan maguaren ikuskizun batian sonbrerotik untxia etara biharrian oillarra etaraten dabilela ikusten dozu. Zer esango ziñuke?

* Erantzunak sarixen zozketarako orrixan idatzi.



AITZAKIXEN KATAIA

Aitzakixa-zerrenda bat proposatuko dotsuegu hemen. Zuek be sortu zeinkie antzeko aitzakixa kataiak. Ia zer asmatzen dozuen!

- Zela nahi dozu aprobatzia. Ez dozu golperik be jotzen **ta!**
- Zela ez dotela golperik be jotzen. Egunero bi ordu ikasten dot **eta!**
- Zela bi ordu ikasten dozula. Atzo be ez ziñuan bape ikasi **eta!**
- Zela ez nebala ikasi, 6etatik 8etara ikasten jardun neban **eta!**
- Zela esan zeinke 6etatik 8etara ikasten jardun ziñuala. Ordu horretan telebista ikusten egon ziñan **da!**



OKA JOKOIA



Fitxa bana eta dado bat hartu. Dadua bota eta tokatzen jatzuen laukixan dagon esaldixa osatu biharko dozue behian azaltzen diran aditz trinkuekin. *Adb: 1- Juan ahal naiz jartzen badau, Ni Juan neike esan biharko dozue. Esaldixa zuzena bada, leku horretan geldittuko zarete, bestela fitxia lehen zeguan tokira bueltau biharko dozue. Erabili biharreko aditzak ondorenguk dira:*

ORAINALDIXA NOR ETA NOR-NORK

Ahal naiz/dot, NEIKE; Ahal zara/dozu, ZEINKE; Ahal da/dau, LEIKE; Ahal gara/dogu, GEINKE; Ahal zarete/dozue, ZEINKIE; Ahal dira, LEIZKE; Ahal dabe, LEIKIE.

LEHENALDIXA NOR ETA NOR-NORK

Ahal nintzan, NEIKIEN; Ahal ziñan, ZEINKIEN; Ahal zan, ZEIKIEN; Ahal giñan, GEINKIEN; Ahal ziñaten, ZEINKIEN; Ahal ziren, ZEIZKIEN;

Ahal neban, NEIKEN; Ahal ziñuan, ZEINKEN; Ahal zeban, ZEIKEN; Ahal giñuan, GEINKEN; Ahal ziñuen, ZEINKIEN; Ahal zeben, ZEIKIEN.

ORAINALDIXA NOR-NORI-NORK

Ahal dotsat; NEIKIXO; Ahal dotsazu, ZEINKIXO; Ahal dotsa, LEIKIXO; Ahal dotsagu, GEINKIXO; Ahal dotsazue, ZEINKIXUE; Ahal dotse, LEIKIXUE

1 Juan ahal naiz	2 Emon ahal dotsa	3 Etorri ahal ziren	4 Egin ahal dozue	5 Laga ahal dotsat	6 Marraztu ahal dabe	7 Emon ahal dotsazu
						8 Mobidu ahal zara
15 Eskatu ahal dotsazue	14 Etorri ahal da	13 Dutxatu ahal ziñan	12 Juan ahal dira	11 Emon ahal dotsagu	10 Etorri ahal giñan	9 Etzan ahal gara
16 Jarri ahal zan						
17 Zutittu ahal gara	18 Lagundu ahal dotsagu	19 Juan ahal nintzan	20 Erregalau ahal dotse	21 Jarri ahal ziñaten	22 Etzan ahal zarete	23 Egin ahal dabe
						HELMUGA ZORIONAKI

* Oka haundixago inprimatu nahi badozue, Interneten topau zeinkie:
<http://www.bergara.net/Euskara>

ERANTZUN ZUZENAK

- 1- Joan ahal naiz: NEIKE
- 2- Emon ahal dotsa: LEIKIXO
- 3- Etorri ahal ziren: ZEIZKIEN
- 4- Egin ahal dozue: ZEINKIE
- 5- Laga ahal dotsat: NEIKIXO
- 6- Marraztu ahal dabe: LEIKIE
- 7- Emon ahal dotsazu: ZEINKIXO
- 8- Mobidu ahal zara: ZEINKE
- 9- Etzan ahal gara: GEINKE
- 10- Etorri ahal giñan: GEINKIEN
- 11- Emon ahal dotsagu: GEINKIXO
- 12- Joan ahal dira: LEIZKE
- 13- Dutxatu ahal ziñan: ZEINKIEN
- 14- Etorri ahal da: LEIKE
- 15- Eskatu ahal dotsazue: ZEINKIXUE
- 16- Eseri ahal zan: ZEIKIEN
- 17- Zutittu ahal gara: GEINKE
- 18- Lagundu ahal dotsagu: GEINKIXO
- 19- Joan ahal nintzan: NEIKIEN
- 20- Oparittu ahal dotse: LEIKIXUE
- 21- Eseri ahal ziñaten: ZEINKIEN
- 22- Etzan ahal zarete: ZEINKIE
- 23- Egin ahal dabe: LEIKIE

SARIKEN ZOZKETAN PARTE HARTZEKO ORRIXA

UMIENDAKO ARIKETIA

Zein erantzun emon dotsazu 2. orriko egoeren ariketari?

- 1.-
- 2.-
- 3.-
- 4.-

GURASO EUSKALDUNENDA KO ARIKETIA



Etxekua oinarri

Ahalerako zein aditz sartuko ziñuke ondorengo esaldixetako hutsunietan?

- 1- Maite! Andereñuari emon _____ paper hau nere partez?
- 2- Gaur arratsaldian ezin _____ zuen billa eskolara juan.
- 3- Martxel! Noiz geldittu _____ bixok bazkarixa prestatzeko?
- 4- Atzo harek egin _____ etxeko lanak, baiña azkenian telebista ikusten geldittu ziran!
- 5- Nik Maleni musu haundi bat emon _____ gero?

GURASO ERDALDUNENDA KO ARIKETIA



El apoyo de casa es básico

Jarri zuk euskaraz aurretik zure gurasuak erdaraz jarritakua.

En castellano se usa "Si" en frases que significan sorpresa o incredulidad. En euskera se utilizan "eta", "baiña"... con el mismo fin. Os proponemos realizar el siguiente ejercicio en colaboración con los/as hijos/as. Se trata de que respondáis vosotros/as primero en castellano siguiendo el modelo propuesto y que a continuación vuestro/a hijo/a ponga esa misma frase en euskera.

Adibidea/ Un ejemplo:

Umiak/Hijo-a: – ¿Puedo conducir yo el coche? – Eruan **neike** nik autua?Gurasuak/Padres: – ¿Que dices? ¡Si tu no sabes conducir! – Zer esaten dozu? Zuk ez dakizu gidatzen **eta!**En fiestas, ¿puedo quedarme con las amigas hasta la una? / Jaixetan geratu **neike** lagunekin ordubata arte?

- ¿Qué dices? Si.....

- Zer esaten dozu?.....eta.

Quiero unas botas nuevas. / Bota berrixak nahi dittut.

- ¿Qué dices? Si.....

- Zer esaten dozu?.....eta.

Sarixen zozketan parte hartzeko, bete hemen zure datuak:

Izen-abizenak.....Edadia.....

Ikastetxia..... Etxeko telefonua.....

Sarixen zozketan parte hartu nahi badozu, bete orrialde honetan eskatzen diren erantzunak eta ikastetxian dagon **Apatxi buzoian sartu edo Udaletxeko Euskara Zerbitzura eruan martxuaren 18xa** baiño lehen.

